GRADUONDOKO IKASKETEN PLAN ESTRATEGIKOAREN EZARPENA: Master Ofizialetako Konpromiso Dokumentua

Lehen edizioa
2015-17

Nekane Balluerka Lasa
Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordea

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

AURKIBIDEA

0. Sarrera

1. UPV/EHUko Graduondoko Ikasketen Plan Estrategikoa 2014-2017

1.1. Misioa eta ikuspegia
1.2. Gaur egungo egoeraren diagnosia
1.3. Ardatz Estrategikoak: helburu estrategikoak

2. Konpromiso dokumentua

2.1. Helburuak
2.2. Irizpideak
2.3. Egutegia
2. 4. Fitxa

0. SARRERA

2014ko uztailaren 10ean Gobernu Kontseiluak UPV/EHUko Graduondoko Ikasketen Plan Estrategikoa onartu zuen. Master ofizialetako konpromiso dokumentua plana ezartzeko prozesuan kokatzen da.

1. UPV/EHUko GRADUONDOKO IKASKETEN PLAN ESTRATEGIKOA 2014-2017

1.1. MISIOA ETA IKUSPEGIA

UPV/EHUren **misioa** graduondoko ikasketen esparruan

- Eskaintzen duen graduondoko prestakuntzak honako ezaugarri hauek izatea:
  - ✓ osoa, malgua, kritikoa eta euskal gizartearen premiei egokitua izan dadila,
  - ✓ sormena, ekimena, enplegagarritasuna eta konpromiso etikoa eta soziala bultza ditzala,
  - ✓ kalitatezko ikerketa bultza dezala,
  - ✓ eta nazioarte mailan erakargarria izan dadila.

UPV/EHUren **ikuspegia** graduondoko ikasketen esparruan

- Graduondoko irakats eskaintzan bikaintasuna eskuratzea ondokoak lortzeko:
  - ✓ euskal gizartearen garapen ekonomikoari eta ongizateari lagunduko dien ezagutza sortzea,
  - ✓ inguruko goi mailako hezkuntzaren erreferente izaten jarraitzea,
  - ✓ graduondoko ikasketen esparruan nazioarteko erreferente bilakatzea,
  - ✓ irizpidedun pertsonak, sortzaileak, ekintzaileak eta gizartearekin konprometitutakoak prestatzea.

1.2. GAUR EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSIA

Graduondoko ikasketen gaur egungo egoera aztertu dugu, honako hauek aintzat hartuta:

- barruko ezaugarriak:
  - Ahuleziak: gainditu beharreko barruko oztopoak eta arazoak antzeman ditugu.
  - Indarguneak: gure graduondoko ikerketen barruko elementu positiboak antzeman ditugu.
- eta kanpoko egoera:
  - Mehatxuak: egoera negatiboak antzeman ditugu, gainditu ahal izateko.
  - Aukerak: inguruneak sortutako faktore positiboak antzeman ditugu, onura ateratzeko.

Ahuleziak

- Hobetu daitekeen graduondoko ikasketen estrategia.
- Master eta doktoregoen eskaintza garatzerakoan handitu aurreko koordinazio eta hausnarketa nahikorik ez.
- Ikasle kopuru txikia master kopuru handi batean (15 ikasle baino gutxiago masterren %20an).
- Hautazko kreditu asko ikasle gutxiko masterretan.
- Graduondoko ikasleen ehunekoa (%10) graduko ikasleena baino txikiagoa.
- Nazioarteko ikasle gutxi, Latinoamerikatik datozenak kenduta.
- Gainezarpenak masterretan (nahitaezko irakasgaiak eta ikerketa lerroak) eta doktorego programetan (ikerketa lerroak).
- Eskaintza urria on line egiteko masterretan.
- Euskararen presentzia urria graduondoko formakuntzan.
- Eskaintza espezializatuegia zenbait espezializazio arlotako doktorego programetan.
- Eskaintza urria eta ikasle gutxi UPV/EHUko berezko tituluetan, Gizarte eta Lege Zientzien arloan izan ezik.

Indarguneak

- Lanbiderako ahalmena ematen duten masterren eskaintza zabalagoa eta matrikulatutako ikasleen kopuru handia.
- Master eta Doktorego Eskolaren sorrera eta garapena.
- Latinoamerikako ikasle kopuru handia.
- Bi Erasmus Mundus masterretan parte hartzea eta horietako bat koordinatzen duen unibertsitatea izatea.
- Masterren %10 osorik ingelesez ematea eta nazioarteko unibertsitate arteko 6 master ematea.
- Master eskaintza zabala jakintza adar guztietan.
- Neurri handi batean Horizon 2020 programarekin bat datozen masterrak eta doktorego programak.
- Bikaintasun aipamena duten 32 doktorego programa eta ANECAren aldeko txostena duten beste zazpi.
- Urteko tesi kopuru handia zenbait espezializazio arlotan.
- Nazioarteko tesien kopurua nabarmen eta etengabe handitzea.
- Tutorekidetzan egindako tesien kopurua handitzea.
- Graduondoko prestakuntza jaso duten ikasleen lan jarduerari buruzko adierazleen eboluzio positiboa.

Mehatxuak

- Eusko Jaurlaritza: finantziazio publiko egonkorra murriztea krisi ekonomikoaren ondorioz.
- Nazioartean izen handia duten beste unibertsitate batzuen lehia:
  - ✓ Graduondoko ikasleen ehunekoa handia izatea.
  - ✓ Nazioarteko ikasle asko erakartzea.
- Inguruko unibertsitateen lehia:
  - ✓ Berezko tituluen eskaintza zabala.
- Graduondokoak on-line eskaintzen dituzten estatuko eta nazioarteko unibertsitateak.
- Neurrizko kalitatezko lan baldintzak zenbait jakintza adarretan.
- Graduondoko eskaintza euskal gizartearen eskakizunekin zuzenago lotzeko premia.

Aukerak

- Latinoamerikako Doktorego Sarea zabaltzea eta finkatzea.
- Mugaz Gaindiko Euroeskualdeko Campusa bultzatzea.
- On line prestakuntza eskaintzeko plataforma berriak garatzea.
- Erasmus Mundus masterren eta ingelesez ematen diren masterren eskaintza finkatuaren ondorioz nazioarteko ikasleak erakartzea.
- Graduondoko eskaintza euskararekin eta euskal kulturarekin lotzea.
- Bizitza osoko prestakuntzaren beharrizana egotea.
- UPV/EHU gizartean erreferentziazko erakundea izatea.

1.3. ARDATZ ESTRATEGIKOAK: HELBURU ESTRATEGIKOAK

1.3. Ardatz estrategikoak: helburu estrategikoak

Ardatz estrategikoak dira UPV/EHUko graduondoko ikasketek hartu beharreko norabidea ezarriko duten jarduera eremuak, datozen urteotan unibertsitateak bere misioa gara dezan:

- ✓ I. ardatz estrategikoa – Ikerketa-Prestakuntza.
- ✓ II. ardatz estrategikoa – Lurraldearekiko lotura.
- ✓ III. ardatz estrategikoa – Nazioartekotzea.

Ardatz estrategikoak garatzearekin batera, UPV/EHUko graduondoko ikasketek jasangarritasun baldintza batzuk bete beharko dituzte, UPV/EHUko gobernu organoek zehaztu eta onartutakoak. Besteak beste, honako hauek :

- Master ofizialak eman ahal izateko gutxieneko ikasle kopurua.
- Master ofizialetako hautazko kredituen eskaintza mugatzea matrikulatutako ikasle kopuruaren arabera.
- Gainezarpenik ez egotea master ofizialetako nahitaezko irakasgaietan eta ikerketa lerroetan, ezta doktorego programetako ikerketa lerroetan ere.

I ardatz estrategikoa. IKERKETA/PRESTAKUNTZA

UPV/EHUren helburua da:

- ✓ kalitatezko graduondoko prestakuntza eskaintzea,
- ✓ jakintzaren arlo guztietan ezagutza transmititzea, ikerketa eta gizartearekiko konpromisoa sustatzeko.

Horretarako:

- ✓ UPV/EHUk graduondoko eskaintza jasangarria eta kalitatezkoa izango du.
- ✓ UPV/EHUk graduondoko eskaintza bi hizkuntza ofizialetan eta ingelesez izango du.
- ✓ UPV/EHUk unibertsitatean defendatutako doktorego tesien kopurua handitu eta horien kalitatea hobetuko du.

II. ardatz estrategikoa. LURRALDEAREKIKO LOTURA

UPV/EHUren asmoak dira:

- ✓ Ekoizpen sarearen, gizarte erakundeen eta, oro har, euskal gizartearen prestakuntza premiei erantzutea.
- ✓ Jakintzaren transferentzia, ekimena, enplegagarritasuna eta konpromiso etikoa eta soziala hobetzea.

II. ardatz estrategikoa LURRALDEAREKIKO LOTURA

Horretarako:

- ✓ UPV/EHUk sormenaren, ekimenaren eta berrikuntzaren kultura sustatuko du graduondoko prestakuntzan.
- ✓ UPV/EHUk enplegagarritasuna eta laneratzea hobetuko dituzten gaitasunak eskuratzea erraztuko du Euskal Herriko hainbat erakunde, gizarte eragile, entitate eta enpresekin batera.
- ✓ UPV/EHUk elkarrizketa eta partaidetza bultzatuko dituen eta ekoizpen sarearen, gizarte erakundeen eta, oro har, euskal gizartearen premiei erantzungo dien graduondoko prestakuntza bultzatuko du.
- ✓ UPV/EHUk euskararekin eta euskal kulturarekin lotutako graduondoko eskaintza sustatuko du.
- ✓ UPV/EHUk bizitza osoko prestakuntza eta ikaskuntza aktiboa, eskuragarria eta malgua sustatuko dituen eta informazio eta komunikazio teknologien bidez urrutiko ikaskuntza erraztuko duen graduondoko eskaintza bultzatuko du.

III. ardatz estrategikoa. NAZIOARTEKOTZEA

UPV/EHUk honako hauek eskaintzeko asmoa du:

- ✓ Nazioarte mailan erakargarria izango den graduondoko eskaintza,
- ✓ Bikaintasunezko ikertzaileak erakarri eta prestatzeko balioko duena.

III. ardatz estrategikoa. NAZIOARTEKOTZEA

Horretarako:

- ✓ UPV/EHUk nazioarteko goi mailako hezkuntzako erakundeekin itunak eta lankidetza finkatuko ditu mugikortasuna, titulazio bikoitzak, nazioarteko sareetako partaidetza eta nazioarteko tesiak eta tutorekidetzan egindako tesiak sustatzeko.
- ✓ UPV/EHUk Latinoamerikan duen presentzia finkatuko du unibertsitateekin eta goi mailako hezkuntzako erakundeekin elkarlanean. Zehazki, Latinoamerikako Master eta Doktorego Sarea finkatu eta handituko du.
- ✓ UPV/EHUk graduondoko prestakuntza nazioarteko beste eremu geografiko batzuetara zabaltzea bultzatuko du Mugaz Gaindiko Euroeskualdeko Campusaren esparruan.
- ✓ UPV/EHUk nazioarteko ikasleak erakartzeko bideak sustatuko ditu.
- ✓ UPV/EHUn prestakuntza bidean dauden nazioarteko ikertzaile talentudunak erakartzeko eta haien leialtasuna lortzeko politika bat bultzatuko du.
- ✓ UPV/EHUk graduondokoetan atzerriko hizkuntzen ezagutza maila eta erabilera handitzea sustatuko du.
- ✓ UP/EHUk masterren eta doktorego programen nazioartekotze premietara egokituko ditu egiturak, zerbituzak eta prozedurak.

2. KONPROMISO DOKUMENTUA

2.1. HELBURUAK

2.1. Helburuak

- UPV/EHUko master ofizialetarako finantzazio gehigarria ezartzea, adierazle batzuen betetze mailaren arabera.
- Adierazle horiek lotuta daude UPV/EHUko Graduondoko Ikasketen 2014/2017rako Plan Estrategikoan ezarritako helburuei.
- Konpromiso dokumentuko adierazleak bost kategoritan banatuta daude.

2.2. IRIZPIDEAK

Master ofizialen 2015-2017ko konpromiso dokumentuan nahitaezko adierazleak eta aukerako adierazleak daude.

- Nahitaezko adierazleak master ofizial guztietan egon behar dira.
- Hautazko adierazleak lau kategoriatan daude: kopuru mugatu bat aukeratu behar da.

Kategoria	Nahitaezko adierazleak	Hautazko adierazleak	Aukeratu beharreko hautazko adierazleak
Masterreko ikasle kopuruaren bilakabidea	1	0	0
Masterreko irakasleen ikerketa eta irakaskuntza jardunaren kalitatea	2	2	1
I. ardatz estrategikoa: ikerketa eta prestakuntza	2	5	3
II. ardatz estrategikoa: lurraldearekiko lotura	1	3	2
II. ardatz estrategikoa: nazioartekotzea:	1	10	7
Adierazleak, guztira	**7**	**20**	**13**

2.2. Irizpideak

- Aurrekontuaren %20a master guztien artean banatuko da, denek oinarrizko finantzaketa izan dezaten.
- Finantzaketa honi beste kopuru bat gehituko zaio kanpoko irakasleak finantzatzeko.
- Master ofizialetarako finantzazio gehigarria adierazle horietan lortutako balioen araberakoa izango da.
- Irizpide batzuk ezarritako dira, eta haietatik abiatuta puntuazio bat emango zaio master bakoitzari.

- Master bakoitzak konpromiso dokumentu bat jasoko du. Bertan jasota egongo dira masterraren balioak adierazle bakoitzerako, eta balio horiei esleitutako puntuazioa.
- Batzorde Akademikoak lehendabizi aukeratu beharko ditu kategoria bakoitzean ebaluatzea nahi duen hautazko adierazleak.
- Ebaluazio negatiboa (GORRIZ) jaso duen adierazleetan hobetzeko konpromisoa adierazi beharko du nahitaez.

- Gainerako kasuetan, kategorian puntuaziorik handiena lortu ez badu, beti jarri ahalko du hobetzeko konpromisoa, eta horrek puntuazioa igoko dio adierazle horretan.
- Master ofizialak finantzatzeko aurrekontua proportzioan banatuko da, lortutako puntuen arabera.

2.3. EGUTEGIA

- Master ofizial bakoitzaren 2015-2017rako konpromiso dokumentua negoziatu eta sinatzeko fasea 2015eko lehen seihilekoan beteko da.
- 2016ko azken hiruhilekoan adierazleetan lortutako emaitzak aztertuko dira berriro, eta hurrengo aldirako finantzazio gehigarria banatuko da emaitzon arabera.

2.4. FITXA

MASTERRAREN INFORMAZIO OROKORRA	
Masterraren izena	
Espezializazio eremua	
Jakintza adarra	
Orientazioa	*(iherketa edo lanbidea)*
Horizon 2020ren araberako eremua	*(Eremua: (Eremua: Industrial Technologies, Societal Challenges, Complementarities)*
Euskampusaren araberako arloa	*(Espezializazio arloa)*

MASTERREKO IKASLE KOPURUAREN EBOLUZIOA						
ADIERAZLEA	2011-12	2012-13	2013-14	2014-15	ESLEITUTAKO PUNTUAZIOA	HOBETZEKO KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA
Masterreko ikasleen kopurua						
Ikasleen batez besteko kopurua espezializazio eremuko						
Ikasleen batez besteko kopurua jakintza adarreko.						

MASTERREKO IRAKASLEEN IKERKETA ETA IRAKASKUNTZA JARDUNAREN KALITATEA (GAURren grabatutako irakats eskaintza)				
ADIERAZLEA	2013-14	ESLEITUTAKO PUNTUAZIOA	AUKERATUTAKO ADIERAZLEA (markatu X batez hautazko adierazle bat)	HOBETZEKO KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA
Iritzi inkestaren bidez ebaluatuak izan diren irakasleen ehunekoa				
Iritzi inkestan irakasleek lortutako puntuazioen batez bestekoa (gutxienez bost inkesta)				
Irakaskuntza akreditazioa (Docentiaz) daukaten UPV/EHUko irakasleen kopurua				
Seiurteko bi edo gehiago dauzkaten UPV/EHUko irakasleek emandako kredituen kopurua				

I. ARDATZ ESTRATEGIKOA: IKERKETA-PRESTAKUNTZA				
ADIERAZLEA	2013-14	ESLEITUTAKO PUNTUAZIOA	HOBETZEKO KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA	
Gainjartzeak nahitaezko irakasgaietan (1)			(Adibidea: beste master batzuetan ere ematen diren irakasgaietan partekatzen diren ikasgelen kopurua)	
ADIERAZLEA	2013-14	ESLEITUTAKO PUNTUAZIOA	AUKERATUTAKO ADIERAZLEA (markatu X batez hautazko hiru adierazle)	HOBETZEKO KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA
Bost ikasle edo gutxiago dituzten hautazko irakasgaien kopurua (1)				
Eskainitako hautazko irakasgaien kopurua (1)				
Eskainitako hautazko irakasgaietan matrikulatutako ikasleen batez besteko kopurua				
Euskarazko nahitaezko kredituen kopurua				
Euskarazko hautazko kredituen kopurua				
Euskaraz egindako Master Amaierako Lanen kopurua				

(1) Beste adierazle gehienetan ez bezala, hemen helburua balio hori gutxitzea da.

II. ARDATZ ESTRATEGIKOA: LURRALDEAREKIKO LOTURA				
ADIERAZLEA	2013-14	ESLEITUTAKO PUNTUAZIOA	AUKERATUTAKO ADIERAZLEA (markatu X batez hautazko bi adierazle)	HOBETZEKO KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA
Master Amaierako Lanak egiteko inguruko erakundeekin sinatutako hitzarmenen kopurua				
Praktikak egiteko inguruko erakundeekin sinatutako hitzarmenen kopurua				
Distantzian emandako kredituen kopurua				
Masterraren arloan lana lortu duten masterdunen ehunekoa: lanpostua edo doktorego aurreko beka (2)				

(2) Datu hau masterreko Batzorde Akademikoak ematen du. 2013/14 ikasturteko balioa da 2011/12 ikasturtean masterra amaitu eta masterraren arloan lan egiten duten ikasleen ehunekoa. Zehaztu beharko da zein iturritatik atera den balio hori.

III. ARDATZ ESTRATEGIKOA: NAZIOARTEKOTZEA				
ADIERAZLEA	2013-14	ESLEITUTAKO PUNTUAZIOA	AUKERATUTAKO ADIERAZLEA (markatu X batez hautazko zazpi adierazle)	HOBETZEKO KONPROMISOAREN DESKRIBAPENA
ERASMUS master programaren bidez mugitu diren ikasleen kopurua				
Masterrean matrikulatutako nazioarteko ikasleen kopurua				
Ingelesez ematen diren kredituen kopurua (kontuan hartu barik Master Amaierako Lana eta Practicuma)				
Irakasle akreditatuek ingelesez ematen dituzten kredituen kopurua				
Ingelesez egindako Master Amaierako Lanen kopurua				
Mugikortasun programa batean egon diren masterreko nazioarteko ikasleen kopurua				
Mugikortasun deialdietan parte hartu duten masterreko irakasleen kopurua				

ADIERAZLEA	2014-15	2015/16rako helburua
ERASMUS MUNDUS masterra	BAI/EZ	BAI/EZ
Nazioarteko titulazio bikoitzeko masterra	BAI/EZ	BAI/EZ
Nazioarteko eta unibertsitatearteko masterra	BAI/EZ	BAI/EZ
ADIERAZLEA	**2015-16**	**Hobetzeko konpromisoaren deskribapena**
Masterraren lotura Akitania-Euskadi Euroeskualdearekin	BAI/EZ	(3)

(3) Masterrak Akitania-Euskadi Euroeskualdearekin lotura duela esango dugu baldin eta titulazio bikoitzeko masterra da, eta UPV/EHUren eta Euroeskualdeko beste unibertsitate baten artekoa, edota ikaslea mugitu baldin bada Erasmus Master programaren barruan.

KATEGORIA	ESLEITUTAKO PUNTUAZIOA
OINARRIZKO MAILA	20
KANPOKO KREDITUAK	
MASTERREKO IKASLE KOPURUAREN EBOLUZIOA	
MASTERREKO IRAKASLEEN IKERKETA ETA IRAKASKUNTZA JARDUNAREN KALITATEA	
I. ARDATZ ESTRATEGIKOA: IKERKETA-PRESTAKUNTZA	
II. ARDATZ ESTRATEGIKOA: LURRALDEAREKIKO LOTURA	
III. ARDATZ ESTRATEGIKOA: NAZIOARTEKOTZEA	
PUNTUAZIOA, GUZTIRA	

Mila esker zuen arretarengatik

Muchas gracias por su atención